

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2610

85/2015 DEKRETUA, ekainaren 9koa, zeinaren bidez Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak eratzen baitira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasuneko beste ikastetxe batzuk eraldatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua dioenez, irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da, bere luze-zabalean, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, betiere bazter utzi gabe Konstituzioaren 27. artikulua, artikulua hori garatzen duten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenak, ez eta hori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritza ere.

Lege-agindu hori garatuz, abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuak eskumenak ematen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak sortu, eraldatu, handitu, batu, sailkatu eta kentzeko (3195/1980 Errege Dekretuaren bidez, Estatuak irakaskuntzaren arloan dituen zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko prozesua osatzen da).

Bestalde, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sorrera eransten die lehenago aipatutako eskumenei, eta, 11. artikuluan xedatzen duenez, Gobernuak ezarriko ditu ikastetxe horiek bete beharreko oinarrizko baldintzak, eta horiek sortzea, baimentzea, homologatzea eta kudeatzea Administrazioen egitekoak izango dira haien eskumen-eremuan. Artikulu horren arabera, halaber, profesionaltasun-tituluak eta ziurtagiriak eskuratzeko irakaskuntzako zentro gisa definitzen dira ikastetxe integratuak. Titulu eta ziurtagiri horiek, hain zuzen, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako lanbide-heziketako eskaintza osatuko dute.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuak lanbide-heziketako ikastetxe integratuentzako oinarrizko baldintzak arautzen ditu. Ikastetxe integratuen xedek errege-dekretu horren sarreran bertan daude laburbilduta, era honetan: ikastetxe horiek sortzen dira eskaintza integratu bat ziurtatzeko, gaikuntza emango duena hainbat lanbidetan era kualifikatua aritzeko, eta pertsona helduei etengabeko prestakuntzarako eta enplegarritasun-baldintzak hobetzeko aukera emango diona.

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak II. Kapituluaren jasotzen du lanbide-heziketako euskal sistema integratua. Kapitulu horretan bertan adierazten denez, lanbide-heziketako ikastetxeen sarea da sistema horretako tresnetako bat. II. Kapituluaren Hirugarren Sekzioan, lanbide-heziketako eskaintza integratua deskribatzen da; eskaintza horren oinarrian, ikastetxe-sare zabal bat dago, hasierako eta enplegurako lanbide-heziketa eskainiko duena. Sare horretan, lanbide-heziketako ikastetxe integratuak daude besteak beste. Ikastetxe integratuek irakaskuntza hauek eskainiko dituzte prestakuntza-jardueretan: hasierako lanbide-heziketari dagozkionak; langileen laneratzeko eta birlaneratzeko ekintzei dagozkienak, eta etengabeko prestakuntzari dagozkionak, lanean dabilen langileentzat direnak. Ikastetxe integratuek, baimenduta dituzten lanbide-familiei edo -arloein dagokien prestakuntza-eskaintzaz gainera, lanbide-informazioko eta -orientazioko zerbitzuak eskainiko dituzte, eta, hala badagokio, baita beste ikaskuntza ez formal batzuen bidez edo laneko eskarmentuaren bidez –kualifikazioen eta lanbide-heziketaren sistema nazionalaren esparruan– lortutako gaitasuna ebaluatzeko zerbitzuak ere.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak 8.2 artikuluan ezartzen duenez, hezkuntza- edo enplegu-arloko sailen menpeko lanbide-heziketako ikastetxe integratu publikoak sortu, eraldatu eta kendu ahal izango dira, bi sail horietako edozeinen ekimenez.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan adierazten denez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzari dagokio, lanbide-heziketaren arloan, irakaskuntza-unitate eta -ikastetxe pribatuak baimentzeko, eraldatzeko eta kentzeko proposamena egitea, bai eta unitate eta ikastetxe publikoak sortzeko, eraldatzeko eta kentzeko proposamena egitea ere.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua jakitun jarrita, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko ekainaren 9an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-heziketako ikastetxe integratu publikoak sortzea.

Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 8. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren menpe egon eta lanbide-heziketako irakaskuntzak eskaintzen dituzten institutuak (Dekretu honen eranskinean daude jasota) lanbide-heziketako ikastetxe integratu bihurtuko dira, 2015eko irailaren 1etik aurrera. Lehengoak eraldatuz sortutako ikastetxe berriek izen generiko hau izango dute: Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua.

2. artikulua.– Titulartasun publikoko ikastetxe integratuen sarea.

Titulartasun publikoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sarea eratzen da. Ikastetxe eraldatuak sartuko dira sare horretan, dekretu honen bidez. Hala ere, sare hori zabal daiteke ikastetxe integratu izendatutako beste ikastetxe batzuetara, edo alda daiteke, sareko ikastetxeren bat kenduta edo eraldatuta.

3. artikulua.– Prestakuntza-eskaintza eta ikasleak.

1.– Lanbide-heziketako ikastetxe integratu eraldatuek irakaskuntza hauek eskainiko dituzte prestakuntza-jardueren barruan: hasierako lanbide-heziketari dagozkionak; langileen laneratzeko eta birlaneratzeko ekintzei dagozkienak eta etengabeko prestakuntzari dagozkionak, lanean dabil-tzan langileentzat direnak. Irakaskuntza horiek finkatzerakoan, ekoizpen-ingurunearen eskaerak hartuko dira aintzat, eta sail edo erakunde eskudunak baimenduta beharko dute.

2.– Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 2. artikuluko 3. paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, lanbide-heziketako ikastetxe integratu eraldatuek, baimenduta dituzten lanbide-familiei edo -arloi dagokien prestakuntza-eskaintzaz gainera, lanbide-informazioko eta -orientazioko zerbitzuak eskainiko dituzte, eta, hala badagokio, berriazko araudian zehazten denaren arabera, baita beste ikaskuntza ez-formal batzuen bidez edo laneko eskarmentuaren bidez –kualifikazioen eta lanbide-heziketaren sistema nazionalaren esparruan– lortutako gaitasuna ebaluatzeko prozesuak ere. Ikastetxe horiek, era berean, zenbait jarduera garatuko dituzte berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arloan.

4. artikulua.– Ikastetxeetako langileak.

1.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarriko ditu dekretu honen 1. artikuluan aipatzen diren ikastetxe eraldatuaren plantillak, eta, halaber, giza baliabideak egoki banatzeko beharrezkoak diren administrazio-jardunak sustatuko ditu, lanpostuak betetzeko ezarritako arauekin bat etorriz.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak argitara emango ditu, dekretu bidez, dekretu honen 1. artikuluan aipatzen diren ikastetxe eraldatuaren lanpostu-zerrendak. Dekretu horretan, zehaztuko da zein diren eraldatutako ikastetxeen lanpostuak eta zein diren ikastetxe eraldatuetan sartzen direnak.

3.– Ondorio berberetarako, prozesu bat jarriko da abian, eraldatzen diren ikastetxeetan behin betiko destinoa duten langileak ikastetxe eraldatuei atxikitzeko. Atxikitze hori arau hauek oinarri hartuta egingo da:

a) Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria; dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen ditu.

b) Apirilaren 16ko 86/2002 Dekretua, Lanpostu Zerrendak, ikasturtez ikasturte, Bigarren Hezkuntzako institutueta eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berriazko institutueta zein irakaslerengan duen eragina zehazteko irizpideak ezarri eta irakasleak euren ikastetxeei berriro atxikitzeko prozesua arautzen duena.

4.– Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko langileek ikastetxe eraldatuetan sartzea hauta dezakete, jatorrizko ikastetxean zituzten eskubideak galdu gabe, edo, bestela, lanpostua ezabatu zaienen egoerara iragan daitezke, horrek dakartzan eskubide eta obligazioekin.

5.– Eraldatzen diren ikastetxeetako lanpostuei atxikitako Administrazio Orokorreko langileak ikastetxe eraldatuko lanpostuei atxikiko zaizkie, herri-administrazioetako langile funtzionarioentzat horretarako ezarritako prozedurei jarraituz.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikastetxe eraldatuetako zuzendariak kargutik kentzea.

Ikastetxea lanbide-heziketako ikastetxe integratu bihurtu aurreko egunean utziko dute kargua eraldatzen diren ikastetxeetako zuzendariak, hala ezarrita baitago otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 20. artikuluan, apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoaren bidez emandako idazkeraren arabera (22/2009 Dekretua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeko eta pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedura arautzen duena). Lanbide Heziketako sailburuordeak izendatuko ditu zuzendari berriak, 46/2014 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kontseilu Soziala eratzea.

Irakasleen klaustroa eratu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzaren ekimenez Kontseilu Soziala eratzekeo jarduerak gauzatu beharko dira. Horretarako, gehienez urtebeteko epea egongo da, ikastetxe integratua jardunean hasten denetik hasita. Lanbide Heziketako sailburuordeak behar diren jarraibideak emango ditu ikastetxeetako hauteskunde-prozesuak burutu daitezken. Kontseilu

2015eko ekainaren 12a, ostirala

Soziala bi urtetik behin berrituko da, eta, horretarako, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikas-tetxeetarako oro har aurreikusitako prozedurak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 9an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

85/2015 DEKRETUA, EKAINAREN 9KOA ERANSKINA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN MENPEKO IKASTETXEAK,
LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATU BIHURTZEN DIRENAK

Kodea	Eraldatzen den ikastetxea	Lh-ko ikastetxe integratu eraldatua	Udalerrria
010137	IES (ITS) Ciudad Jardin (ITB) BHI	CIFP Ciudad Jardin LHII	Vitoria-Gasteiz
010138	IEFPS Mendizabala GLHBI	CIFP Mendizabala LHII	Vitoria-Gasteiz
010256	IES (ITS) Hostelería (ITB) BHI	CIFP Hostelería LHII	Vitoria-Gasteiz
010296	IES (ITS) Construcción (ITB) BHI	CIFP Construcción LHII	Vitoria-Gasteiz
012054	IEFPS Armeria Eskola GLHBI	CIFP Armeria Eskola LHII	Eibar
012229	IEFPS Politécnico Easo Politeknikoa GLHBI	CIFP Politécnico Easo Politeknikoa LHII	Donostia
012468	IEFPS Don Bosco GLHBI	CIFP Don Bosco LHII	Errenteria
012763	IES (IIT) Maq.–Herram./Makina-Erreminta (BTI) BHI	CIFP Maq.–Herram./Makina-Erreminta LHII	Elgoibar
013020	IEFPS Miguel Altuna GLHBI	CIFP Miguel Altuna LHII	Bergara
013021	IEFPS Bidasoa GLHBI	CIFP Bidasoa LHII	Irun
013022	IEFPS Usurbil GLHBI	CIFP Usurbil LHII	Usurbil
013023	IEFPS Tolosaldea GLHBI	CIFP Tolosaldea LHII	Tolosa
013255	IEFPS Aretxabaleta Lanbide Eskola GLHBI	CIFP Aretxabaleta Lanbide Eskola LHII	Aretxabaleta
013432	IEFPS Meka GLHBI	CIFP Meka LHII	Elgoibar
014069	IEFPS Nicolás Larburu GLHBI	CIFP Nicolás Larburu LHII	Barakaldo
014088	IES Bidebieta BHI	CIFP Bidebieta LHII	Basauri
014205	IES Emilio Campuzano BHI	CIFP Emilio Campuzano LHII	Bilbao
014301	IEFPS Fadura GLHBI	CIFP Fadura LHII	Getxo
014422	IEFPS San Jorge GLHBI	CIFP San Jorge LHII	Santurtzi
014950	IEFPS Iurreta GLHBI	CIFP Iurreta LHII	Iurreta
015112	IEFPS Elorrieta-Erreka Mari GLHBI	CIFP Elorrieta-Erreka Mari LHII	Bilbao
015628	IEFPS Zornotza GLHBI	CIFP Zornotza LHII	Amorebieta-Etxano
015630	IEFPS Tartanga GLHBI	CIFP Tartanga LHII	Erandio
015666	IEFPS Repelega GLHBI	CIFP Repelega LHII	Portugalete
015763	IEFPS Txurdinaga GLHBI	CIFP Txurdinaga LHII	Bilbao